



*LABek antolatutako "Lan duina, bizi duina" Ekimen Ibiltaria Gasteizera iritsi da gaur, urriaren 16tik hona prekarietatearen aurkako aldarria Euskal Herriko hainbat txokotan zabaldu eta gero. Zerbitzu publikoetan bizi den egoera salatzeke baliatu dugu gaurko eguna, Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia Gasteizen dagoela kontutan hartuta. Hala, LABeko Zerbitzu Publikoetako Federazioko idazkari Gorka Berasategik ohartarazi du Eusko Jaurlaritzaren magalean dauden administrazioak prekarietatea eta behin behinekotasun gehien dutenak direla.*





